

Argiaren faktura



JUNE FERNÁNDEZ
KAZETARIA

Pasa den ekainean indarrean sartu zen Hego Euskal Herrian argia tarifakatzeko sistema berria, atsedendu-orduetan salbu energia kontsumoaren prezioa garestitu duena. Energia aurrezteko, eraginkortasuna eta autokontsumoa sustatzeko neurri gisa aurkeztu du Espainiako Gobernuak. Carmen Calvo presidenteordeari irratiko elkarrizketa batean galdetu diotenean, zera erantzun du: "Temazoa ez da garbigailua noiz jartzen den, nork jartzen duen baizik". Hau da, feminismoaz baliatu da arreta fokua aldatzen saiatzeko.

Estrategia kaskarra, genero ikuspegi falta baita, hain zuzen ere, neurria kritikatzeko arrazoiatariko bat. Emakumeok garbigailu gehiago jartzen ditugu baina, batez ere, presentetago dugu zer arropa garbitu behar den edota detergentea erosi behar dugun. Horri karga mentala deitzen zaio eta argiaren faktura berriak areagotu du, erlojuari begira egin behar

ditugulako orain etxeko lan gehienak.

Ez da harritzekoa, halaber, politika honen klase ikuspegi falta. Izan ere, *temazoa* ez da soilik garbigailua nork jartzen duen, baizik eta nortzuk ditugun ordua programatzeko aukera ematen duten etxetresna elektrikoak eta nortzuk dituzten argiaren faktura ordaintzeko zailtasunak. Jakin badakigu pobrezia energetikoa bizi duten herritarren gehiengoak emakumeak direla eta, genero sozializazioa medio, hornidura-etenek eta zorrek berebiziko sufrimendu emozionala eta estigma soziala eragiten dietela. Emakume horien profila ez dator bat Calvoren iruditerian nagusi diren emazte heterosexualekin: adineko emakume alargunak –gogora dezagun Katalunian hildako Rosa, berotzeko kandelak erabiltzen zituen argia moztu ziotenetik–, migranteak, ama bakarrak eta etxeko langileak dira.

Zaurgarritasun horren ifrentzua

energiaren multinazionalen administrazio-kontseiluetan aurkituko dugu: Repsol, Endesa edota Naturgy enpresen zuzendaritza-postuen %85 inguru gizonek bereganatzen dituzte. Korporazio horiek dira –baita Iberdrola ere– kutsadura gehien eragiten dutenak baina, paradoxikoki, trantsizio energetikoa bultzatzeko aurrekontu publikoen onuradun nagusiak izatea lortu dute.

Petronorrena gertuko adibide argia dugu: Muskizeko itsasadarrera petrolio isurtzeagatik eta koke planta baimenik gabe eraikitzeagatik zigorrak jaso ditu eta, aldi berean, Hidrogenoaren Euskal Korridorearen proiektuan Jaurlaritzaren bidelagun nagusia da; Europako Next Generation funtsetara aurkeztutako egitasmoen artean potoloena.

Vanessa Álvarez ekofeministari *El Salto*-n irakurri diot energiaren inguruko eztabaidetan emakumeak biktimaren rolean agertzen direla gehien bat, eta ez eraldaketarako agente gisa. Aitzitik, ez da kasualitatea Kataluniako Pobrezia Energetikoaren Aurkako Aliantzaren kide gehienak emakumezkoak izatea, baita Petronorren kalteak salatzen dituen Meatzaldea Bizirik plataformakoak ere. Plataforma horren bozeramailea den Sara Ibañez obstetra jubilatua kontaktatu du 1992an bigarren abortua izan zuenean egin zela aktibista, eskualdeko emakumeen arazo ginekologikoak Petronorren jardunarekin lotu zituelako.

2018an, Trantsizio Energetiko Ekofeminista baten aldeko Emakumeen Sarea sortu zuten 150 lagunek Bilbon. Besteak beste, plaka fotovoltaikoak instalatzeko tailerrak egin dituzte, ahalduntze feministaren ikuspegitik.

Autodefentsa eta autoantolakuntza dira energiaren monopolio patriarkal eta kapitalistari aurre egiteko bi gakoak. Hori izan behar litzateke feministontzat *temazoa*. ●



PAULA ESTÉVEZ